



III. ERANSKINA: Perretxikoak eta barraskiloak saltzeko bete beharrekoak

Landutako perretxiko freskoak merkaturatzearen inguruan, berriz, 30/2009 Errege Dekretuaren eranskinaren B zatian jasotako espezieak baino ezingo dira saldu.

HIGIENE ETA OSASUN ALORREKO BETEBEHARRAK TOKIKO PERRETXIKOAK ETA ONDDOAK MERKATURATZEKO

- Jateko moduko barruan sailkatutako perretxikoak baino ez dira merkaturatuko (**urtarrilaren 16ko 30/2009 Errege Dekretuaren eranskinak**).
 - Behar bezala identifikatu beharko dira.
 - Kontserbazio baldintza ezin hobeetan aurkeztuko dira, gusturik gabe, usain arrarorik gabe, eta kanpoko hezetasun gehiegirik gabe.
 - Ez dute ez lesiorik ez traumatismorik izango, haien itxura edo aurkezpena eragiten dituenik, ezta alderdi ustelik edo izotzak kaltetutakorik ere.
 - Ez dute ez harrik, intsekturik edo erantsitako material arrarorik izango. Ezta mikroorganismo patogenorik, eta pestiziden edo kutsatzaile kimikoen hondakinik ere.
 - Pedunkuluan ebaki garbia eginda jasoko dira.
 - **Debekatuta dago perretxikoak eta onddoak zuzenean saltzea biltzaileak azken kontsumitzaileari.**
 - Bakarrik jarriko dira salmentan baimendutako elikagai enpresa batek sortutako perretxikoak eta onddoak:
 - Enpresak baimena izan beharko du eta saltokian Osasun Erregistro Nagusiko Zenbakiaren kopia izan beharko du.
 - Etiketak honakoak azaldu beharko ditu: enpresaren izena, produktuaren izendapena, enpresaren identifikazioa, **produktuaren jatorria** eta merkataritza kategoria, gordetzeko baldintza bereziak, iraungitze-data eta/edo kontsumo lehenetsia.
 - Produktuaren izendapenean generoa eta espeziea adieraziko dira.
 - Basokoak edo landatuak diren adieraziko da.
 - Baso perretxikoen kasuan:
 - Osorik erakutsiko dira, haren ezaugarri anatomikoak garatuak eta ongi ikus-teko moduan daudela, eta ezin izango dira garbituak egon.
 - Ez dira espezie desberdinak nahastuko.
-



- Honakoa dioen kartela jarriko da: produktuaren izena (generoa eta espeziea) eta jatorria.
- Landutako perretxiko freskoen kasuan:
 - Honakoa jarriko da etiketan: produktuaren izena (generoa eta espeziea), enpresaren identifikazioa, produktuaren jatorria eta merkataritza kategoria.